

Herri Aldizkaria **Otamotz**

1998ko azarailu 39. alea

Ez adiorik Gaztelekuari...



...geroarte baizik.


ZUMARRAGAKO FESTAK ARGAZKITAN

**GOITEGI
EDARITEGIA**

**AINDA
TABERNA**

TXINDOKI

KAFETEGIA
pintxo eta plater konbinatuetan
espezializatua




Geltokietako jaiak 98

ondo pasa taberna haueh partetik



APAIN

TABERNA- JATETXEA



**TABERNA
CHARRO**

**OSINALDE
CROISSANTERIA**

**PAGOETA
TABERNA**

KURKUTX

UROLA

**THE
KATHEDRAL'S
PUB**

**HIRU
TABERNA**

**ZABALETA
TABERNA**



Plazaola, Javier Bergerandi, eta Andoni Aranzadi.

Antion Andra
Mari egunean
meza ondoren
dantzatzeko
aureskua egiten
ikus ditzakegu
besteak beste,
Ignacio Andua-
ga, Miguel Urte-
aga, Jose Luis
Ruiz, Juan M^a



San Pedro, Ramon
Esnaola eta Tximista
txistulariak.

Julian Osinalde, Luis
Olaortua, Julian
Elgarresta, Jose M^a
Kortaberria, Luis
Barrena, Ricardo
Elgarresta, Ignacio
Etxeberria, Jesus M^a
Mendia, Jose M^a

Agirrebeña, Miguel Urteaga, Ignacio Anduaga eta Jose Luis Ruiz
dantzariak ikus ditzakegu Zumarragako Euskadi enparantzan atera-
tako argazkian.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako
Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak,
Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.

Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Jon Balenziaga **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane
Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo,
Asier Zaldúa. **Publizitatea:** Asier Zaldúa **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Azaleko argazkia: LIZA Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96
ISSN:1136-7318 Tirada:2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzun-
kizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

MURUA

Oinetako konponketa

Laruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



SALTOKIA

DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



MADARIAGA

Gestoria-Inmobiliaria-asegurua

Labeaga, 27 eta faxa: 72 55 29
URRETXU



ERAIKUNTZEKO
MATERIALAK

ALMACENES

SANTA BARBARA

Eraikuntzarako era guztietako materialak.
Gres eta azulejotan markarik onenak.

Mugitegi Pol. B, 2 eta faxa 72 55 16
URRETXU



Legazpi, 5

72 62 74

ZUMARRAGA



GELTOKIETAKO JAIAK 98

OSTIRALA 10

Arratsaldeko 7.00 etan jaiei hasiera emango zaie. Ordu berean Partxiseko txapelketari hasiera emango zaio. Bertan edonork parte har dezake tranposoak izan ezik.

Ondoren Aldiriko K.E. ko konparsa, Urretxuko Erraldoiak eta Buruhandiak ibiliko dira bazter guztiak astintzen.

Gaueko 11.30 etan kontzertua Muxu-Truk taldearen eskutik. Aldi berean Aldapa txarangak auzoa alaituko digu.

LARUNBATA 11

Goizeko 11.00 etan haurrentzako jokoak Urretxuko aisialdi taldeak antolaturik. Urtero bezala.

Arratsaldeko 15.00 etatik 16.00 ak arte gutxienez lokuluska berrindartu ahal izateko.

Arratsaldeko 16.30 etan Mus Relampagoan parte hartzeko inskripzioa itxi egingo da Osinalde tabernan. Informazio gehiago karteletan.

18.00 etan Txornpio, Pantxi eta Pantxo paiasoen agerraldia izango dugu Domingo de Mendaraz enparantzan.

19.00 etan poteoa Zumarragako trikitixak eta Elorza anaiek giroturik.

19.30 etan Lurra eta Irrintzi taldeen saioa.

20.15 etan kantaldia Lourdesko Ama parrokian, ondorengo taldeen eskutik: Legazpiko Santikutz koroa, Urretxuko Irmoazpi koroa, Urretxuko Musika Tailerreko Banda eta Urretxuko Txistulariak. Ondorengo abestiak eskeiniko dizkigutelarik.

- * Oi Ama (koroa)
- * Choral (koroa)
- * Ave Verum (koroa)
- * Euskal pupurria (Txistu)
- * Musika tailerra
- * Nabucco (Koro banda)
- * Las Espigadoras
- * Maite (koro banda txistu)
- * Agur jaunak (Denak)

Gaueko 22.00 etan antzerkia

24.00 etan dantzaldia Flash Band Orkestraren eskutik.

Aldi berean Aldapa txarangak auzo guztia girotuko digu.

IGANDEA 12

Goizeko 7.30 etan sukaldariak eta beraien morroiek Otorduaren prestaketari hasiera eman go diote.

9.30 etan Urretxu eta Zumarragako Txistulariak auzoa esnatzen saiatuko dira.

Eguerdiko 12.00 etan Herri Meza auzoko hildakoen alde.

12.30 etan Herri Kirolak Domingo de Mendaraz enparantzan.

14.00 etan asto lasterketarako hesiak jartzeari ekingo zaio, horretarako auzokideen laguntza eskatzen dugu aurten jende gutxi baitkaude antolaketa lanetan.

14.30 etan Egundoko Bazkaria (Txartelak tabernetan salgai daude 150 bakarrik)

Arratsaldeko 18.00 etan trikitixak lasterketa aurreko giroa alaituko du dena bero-bero egon dadin.

18.30 etan Asto Lasterketa. Jendea parte hartzera gonbidatzen dugu. Eskatzen dugun gauza bakarra mozerrotzea da.


Lasterketa ondoren Kiñu dantza taldeak girotuko du auzoa. Eta afaldu ondoren ere beraiek izango ditugu azken indarrak ahitu arte.






SANTA ISABELAK 98 ARGAZKITAN




OHARRA

Argazki hauez gain argazki gehiago ere badi-tugu, leku faltagatik, ezin izan ditugunak jarri. Negatiboak nahi izanez gero Labeaga, 12 behean dugun egoitzara etorri edo 943 725775 telefonora dei dezakezue.









Udan... hondartza, mendia ala festak?



Edurne eta Nerea

Hondartzara joatea nahiago dugu. Zumaia edo Donostiako hondartzara joaten gara eguzkia hartu eta bainatzera.



Joseba Zabaleta

Jaiak nahiago ditut. Inguruko festetara joango naiz, baina hondartza eta mendira joateko asmoa ere badut.



Nagore Asurabarrena

Festetara joateko asmoa dut batez ere. Ahal dudan guztietara joango naiz baina hala ere, astebukaeraren bat, mendira joateko aprobetxatuko dut.




Itziar Agirre

Denetik pixka bat. Astebukaeretan festa eta astean zehar hondartza. Mendia ere bai buelta txiki bat emateko.



Ainhoa Plazaola

Mendira joango naiz, Iratira, astebetera-ko. Baina handik itzultzean festetara joango naiz.



Kaxiano Izagirre

Denetik pixka bat. Hondartzara, Zumaia joan ohi gara. Mendira berriz, Elosu eta Irimo aldera.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Gazteleku berriaren zain

Hainbat urtetan gazteen bilgune izan den Gaztelekua, San Juan ondorengo egunean bota zuten. Historia luzeko eraikuntza zen Gaztelekua eta baita ere, eraikin berean, beheko aldean zegoen Aldaketa erakusketa gela. 1923. urtean egin zuen Alkorta jaunak, aurrez leku berean zegoen eskailera bat desagertaraziz. Udalaren lurretan eraiki zen, honek 50 urterako kontsezioa eskaini ziolarik Alkorta jaunari. Urte hauetan, jauntxoentzat egoitza modukoa izan zen. Beheko aldean taberna zegoen eta goikaldean, Kasino moduko bat. 1935. urtean, Alkorta jaunak saldu egin zion kontsezioa Federico Ugalderei. Ondorengo urteetan Urretxuko jauntxoek gainbehera etorri zen eta 1952an, Goierriko KEren egoitza izatera pasatu zen. 1977an, Goierriren gaur egungo egoitza eraiki zen eta kirol elkarte, egoitza berrira aldatu zen, zaharra hutsik utziz. 1980an Juanito Arbizu alkate zela, Gaztelekua sortu zen aipatutako egoitzan eta azkenean, 1998ko ekainaren 25ean bota zuten.

Negoziaketa luzeak

Gaztelekua botatzeko asmoa zegoela jakin zutenean, bertako gazteek, beste berri baten eskaria luzatu zioten udalari. Bi aldeek Urretxuko Urola trenaren geltokia izango zela bilgune berria erabaki zuten azkenean eta honekin batera, baldintza batzuk onartu zituzten. Hauen artean deigarriena, ordutegiari dagokiona izan liteke. Gaztelekua, elkarte bat izatean, 2. mailako taldean sartzen da. Ondorioz, neguko astebukaeretan, gaueko 1:30etan eta udako astebukaeretan, gaue-

ko 2:00etan itxi beharko da. Gaztelekua bota eta berria egin bitartean, udalak, behin-behineko lokal bat eskaini die gazteei baina hauek, nahiago dute Gazteleku berria izango den lokalean lanean hasi, itxurazko egoitza berreskuratzeko.

Lan da lan auzolan

Urretxuko udalaren aurrekontuan egoitza berria eraikitzeko, 9 milioi (5 aurten eta 4 iazkoan) daude aurreikusita. Gazteek, beheko solairua auzolanean egiteko konpromezua hartu dute eta momentuz, jendearen erantzuna ezin hobea izan

ordea, ez dute begi onez ikusi Gaztelekuaren kokapen berria. Honen lekuko dira alkatetzara aurkeztu diren 112 sinadura. Sinadura hauen artean, kokapen berri honen aldeko iritziak ere badaude. Udalak, egoera hau argitzeko asmoz, bile- ra bat antolatuko du, bertan, San Martingo bizilagunak, Gaztelekuko gazteak eta udala bera izango direlarik.

Gernikako plaza berritua

Gazteleku zaharrak Gernikako plaza berritu bati utziko dio lekua. Hain zuzen ere, Gaztelekua zen toki berean,

Gernikako Arborearen ernamuin bat jarriko da. Bilgune plaza izateaz gain, hainbat ekintza burutuko den plaza izatea ere nahi da. Horrela, jendea eseritzeko armailak ere egingo dira. Oinezkoentzat soilik izango denez, apartakaleku eskasiari aurre egiteko, udalaren eta Eroskiren artean sinatutako akordio bati esker, 23 plaza izango dituen lur azpiko parking bat egingo da. 27 milioi-ko aurrekontua duen parkinga Eroskik ordainduko du. Dena den, Eroskik oraindik



da. 200 pertsona inguruk eman dute izena eta nahiz eta amaitzeko eperik ez jarri, zazpi hilabetetan bukatu nahiko lukete. Gazteleku berriaren proiektua ere, eurek eginikoa da. 9 milioi berritze lanak aurrera eramateko diru nahiko ez eta horregatik, Zumarragako jaietan, txosna jarri zuten eta errifak ateratzeko asmoa ere badute.

Sinadurak aurka

San Martin auzoko bizilagun batzuk

ez du erabaki dendako ordutegitik at, herriarrek bertan aparkatu ahal izango duten. Berdegunez hornitutako plaza izango da Gernikako Arbola eta ez du oztopo arkitektonikorik izango.

Espiral moduko eskailera bat ere izango du plaza berriak, parkinga, Eroski eta estankoa elkartuko dituen. Orotara, 81 milioi-ko aurrekontua du, berehala hasiko dira lanak eta Santa Lutzi egunerako amaitua egotea espero da. Urretxuko jaietan beraz, ezin izango da Gernikako Arbola plaza erabili.

Gazteleku: Urolako ahate itsusia

Egunak bekarrez bete bete esnatzen den ordu kahotiko horretan, zazpiak aldera, Gaztelekuren oinek dar-dar egin zuten. Etxearen zimenduen luze eutsi zion hondeagailuaren erasoari, ez dudik egin! Eta egun batez, holaxe, begien bistatik osorik desagertzen da hogeitak historia bizia. Txorua ideia. Nik eta nire antzera Urretxu-Zumarragako gazte askok, disimulatu ere ezin dezakegu geure pena.

Idazki hau ez da hildakoari lustrea ateratzeko hoietako omenaldi bat, Gaztelekuk, 1978tik 1998ko ekainaren 25 arte Urretxu-Zumarragan utzi duen itzal handiari goresgarri zurbila baizik. Bide zaharrak igaro eta berreskuratu. Eta atzera begiratu.

Bi herri hauetako jendeak, ezagutzen ez duen edozein gauzaren aurrean, mespreziotsu agertzeko joera jeneralizatua du. Eta ezjakintasunarekiko zaletasun horrek, Urretxu-Zumarragako bizitza sozial eta kulturalen Gaztelekuk izan duen garrantzia ere faltsutzen du. Betaurreko atzera-koidunek droga, zarata eta "itxura txarreko gazteak", marjinaltasun giroa besterik ez dute ikusi. Ez dute ordea, adorerik aski izan, bere historiak gauzatutakoak guztira duen balioan erreparatzeko. Aldarrikapen gune apolitikoa (hori ez du ezein siglarik aldatuko) izan da Gazteleku. Hori izan da, besterik gabe, bere arazoa.

Hogeitak urte horietan lan egin, sortu egin dute, elkar egin dute Gaztelekun, menpekotasunik gabe eta askatasunez, kultura eta gizarte garapenerako kezka, ideiak, pentsakerak eta jatorri ezberdineta-ko belaunaldiak. Betidanik, talde-lanak proposatu ditu, ugariak ekintzak. Izen abizenak dituzten protagonistei esker, askoren borondatezko ahale-ginei esker egin ahal izan den lana: El Piojo Rojo (1985,86,87) eta Potrokolpek (1996) bertatik sortu ziren bi fanzinei eman zioten izena.

Hasierako urteetan, herriari jaiotako margolariek, Aldaketan erakusten zituzten beraien artelanak. Jazz jaialdiek (1987,1992) estatu mailan, zirkuitu garrantzitsuenean lekutu zuten Urretxu. Zinemak zeuden garai urrun hartan, baita filme ziklo underground-ak antolatuta ziren (1988,1990), gogoratzekoa da, "oscarrrak" parodiatuz, gazte anitzen parte hartzeaz buruturiko estreinaldia, eta hortxe Felixin Devil (1985) laburmetrai bikaina gauzatu ahal izan zuten. Egun, "Antzerki Asteaz" ezagutzen denaren bertsio ez ofiziala, "Los comediantes de la luna" talde bilbotarraren lana

rekin lau pareta horien artean eratu zen. Requejo, Emma Zunz, Peio Biain, Txema Iriberriren ipuinak eta Juan Carlos Moreno "Primo", Koldo Cadierno, Benjamin Probanza eta Patxi Sanchezen ilustrazioak biltzen dituen Tras la Capa del container argitalpenarekin (1988), poesia errezitaldi ezberdinekin edo eta "Maitasun gutunaren lehiaketa"-rekin (1996), literatur ardura ere erakutsi zuen. Bertako eskenatoki txikiak, RIP, Delirium Tremens, Su ta Gar, Josi y Los Javis, Lau Behi, Beti Mugan, Jabier Muguruza, Polito Ibañez, Ke Rule, Nako Goñi, Angel Unzu, Blue Rags, Valle del Dom, S.E. Soul Band, Nacho Mediavilla, Marrubi Sound, Le Pendu, Hot Dogs eta abar kanpoko eta bertako berrehundik gora talde eta abeslari garrantzitsuen urratsak jarraitu eta elkarren segidako lau urtetan burututako "Aste Akustiko" arrakastatsuen dibertimenduak kulunkatu zituen azken unerarte. Etxe hortan urtero-urtero antolatuta eta ospatu ziren ekintzak ere izan dira: Futbolin, mus eta xake txapelketak, nesken Errioxara ibilaldiak, Emakumearen eguna eta mendi itteerak. Hortik, eskalada ikastaroak proposatu ziren. Gai ugari ezberdinen inguruan (droga, politika, antimilitarismoa, Abiadura Handiko Trena, eta abar) jardunaldiak, hitzaldiak eta mahai inguruak prestatu ziren bertan.

Horiek eta beste errealitate batzuek, proposamen guzti horiek, ilusio guzti horiek, frakaso eta amets guzti horiek, etorkizun abentura horiek, batera, Urretxu-Zumarragako oraina eraikitzen joan dira. Eta gaur, aurrera begiratzuz, ez dakit, gizartea eta Gaztetxe berria noraino dauden prest edo gertu eraikitze zibila eta kultural horri jarraitzeko. Baina Gaztelekuk emandakoa, eta bere erreferentziak probetxugarriak izan dira. Dagoela argi. Eta orain, beharrezkoak.

Bukatu da. Bizitza ezberdin baten aurrean gaude. Errezagoa eta egiazkoagoa bihurtuko da dena, iragana eta oraina, ikuspegi plural batez ulertzen baditugu. Heldu gabe geratutakoa dagoen bezala utziaz. Alferrik, sentimentalismoaren sutzarrean erretzea. Oroitzapena oroitzean, berritu. Juan Deuna gauean, inoiz baino ederragoa ikusi nion bihotz-behien kolorea.

Lagun min bat galdu izanaren susmoarekin abiatzen naiz egunaren argi-ilunetan barna. Gazteleku, adiskide, adiorik ez.

Araiz Padrón Plazaola



IKER


SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXU

Iritziz iritzi



RENEDO argazkiak

Jarunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

☎ 725682
722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3

ZUMARRAGA

☎ 72 61 13

GORETTI

JANTZIDENDA

**MODAKO
ARROPAK**

Secundino Esnaola, 34 ☎ 943 724996



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17
20700 URRETXU

☎ eta faxa 72 58 28

Indarkeria polizialaren aurrean hutsunerik ez

San Juan egunean, Gaztelekua itxita zegoela, Ertzaintza "gazte gune" horretan ate joka azaldu zen. Bertan zeuden gazteek atea ireki ondoren hauen eta Ertzainen artean sortutako elkarrizketa, Ertzaintzak, gazte bat porraz joz, amaitutzat eman zuen. Ertzaintzak jipoitutako gazteak, gertatutakoa salatu zuen eta Urretxuko alkateari, udalaren laguntza eskatu zitzaion bertako abokatuaren bitartez, salaketa epaitegian tramitatzeke. Jipoitutako gazteak eta berarekin alkatearengana joan zirenak, jasotako erantzuna izan zen, salaketa epaitegian tramitatzeke udalak ez ziola emango eskatutako laguntza. Epe motzean, Ertzaintzak Urretxun izan dituen jokabide biolentoak salatzeke modukoak izan dira: Batetik, baimendutako manifestazioa lehertu zuen, jendea joz eta tiro eginez. Bestetik, Gaztelekua botatzeko egun bat gelditzen zela, bertan sartu eta "Arkauten ikasitako porraren dialektika" erabili zuen. Bi jokabide hauen aurrean, gure ustez, herriarekiko alkatearen hutsunea handia izan da. Ertzaintzak, herrian gaizki egindakoaren kontra azaldu ez den eta jipoituei laguntza ukatzen dien alkateak, Euskal Herrian eman diren hainbat gehikeria polizialaren aurrean orain arte espiritu poliziala izandako barne ministro eta kontseilariak gogorarazten dizkigu. Edozein herritarrek jasan dezakeen agresiio poliziala, alkateak, bere kontrako eraso balitz bezala ez badu hartzen, poliziei edonor gaizki tratatzeko baimenaren antzeko zerba ematen die, nahiz eta gazteak eta ezker abertzalea izan, polizien lehentasuna.

Jon Mikel Irigoras eta Jesus Maria Urbegain
Urretxun, HBko zinegotziak

Urola Telebista abuztuan hasiko da emititzen.

Pello Gonzalez urretxuko alkateak, mankomunitateko lehen-dakaria denez, eta Legazpi 10 ekoizpen etxeko arduradunek, Urola Telebista aurrera eramango duen akordioa sinatu zuten ekainaren 22an.

Hasierako akordio hau urtebeterako da, froga seinalea igortzen den unetik aurrera. Abuztuan espero da seinale hau bidaltzen hastea eta etxean jaso ahal izateko gure etxeko antenak Aizpuru baserriko errepetidorera zuzendu beharko ditugu. Gure telebistetan UHFko 44. katea aurkitzea ere ezinbestekoa izango da. Antena indibidualak norberak mugi ditzake eta komunitateko antenak bideratzeko, teknikoari deitu beharko zaio.

Jendeak bere antenak Aizpuru baserrira zuzentzen dituen heinean, programazioari ekingo zaio. Hasieran, asteko albistegi bat soilik izango da, baina gero, eskualdeko gertakizun ezberdinak grabatzea espero da: Kirolak, kultur ekintzak...

Akordio honen arabera mankomunitateak milioi bat eta erdi pesetako laguntza ematen dio Legazpi 10 ekoizpen etxeari eta honek, programazioaren % 60a euskaraz eta gainerakoa gazte-leraz emititzeko konpromezua hartu du.

Denborarekin, %100a euskaraz izatea espero da eta publizitate bidez errentagarria ez bada, mankomunitateak diru laguntza handiagoa emango du Pello Gonzalez en esanetan. Oraingoz, asmoa eskualde osora emititzeko bada ere, Urretxu eta Zumarragan bakarrik ikusi ahal izango da Urola Telebista.

Zorionak

● Bilbotar kuttu-naren partez, zorionak Itziar eta Markeli bihotz bihotzez



● **Zorionak Jon!!!**
Ondo ospatu zure urtebete tzea, baina, ez ezazu bukatu ohean "Bad" kantatzen



● Irailaren 3rako asko falta den arren zutaz oroitzen garela ikus dezazun.
Zorionak Endika, senideen partetik



● Aupa Peio! Zahartzen hasi-ta gaude eh? Osasuna zain-tzen hasi beharko duzu.
Zorionak Peio!!



● Txan tatatxan!
Zorionak Otxan!! Ze izen da hori? Ondo pasa eta eutsi goiari.



● Frank, zer moduz bizi zara Alemanian? Nola ospatzen dira urtebetetzeak Alemanian?
Zorionak Frank!!



● Hau bai biki pare! Karakola eta bare! Nor da nor? **Zorionak Imanol eta Iñakiri** zuen urtebetetzean!

● **Zorionak Jose Mari** gazte-ak ere zahartu egiten dire-lar! Baina ez arduratu, base-riak eta arbolak ere zen-bat eta urte gehiago eduki, orduan eta ederragoak izat-en dira eta. Urte askotarako, etxeokak eta señoiritia.



● **Zorionak Jaione!!!**
Uda ona igaro lagu-nekin bate-ra eta ez hartu eguz-ki gehiegi.



● Kirola egitea gus-tuko duzula baina neskatan ibiltzea ere bai eh? **Zorionak Jaime** zuk daki-zun horren parte-tik.



● Begoña, Begoñita, zu bai zarela polita.
Zorionak eta ondo pasatu eta gutxi gas-tatu.



● **Zorionak Rakel !!!** Nola doaz euskarako ikasto-ro horiek? Xanara delako talde horrek zoratu egingo zaitu egunen batean baina urtean behin bada ere, zoriontzea pentsatu du.



● **Zorionak Jonmikel !!** Nora begi-ra hago argazkian? Onenek bezala abuztuan egiten dituzu urteak zuk ere. Zuk bai asmatu!! Eskerrik asko zure lan parega-beagatik, papara-zzi bikaina eginda zaude. Lankideen arteko afaria uztailaren 20an egingo dugu. Kotxe berria azaldu.

Gainzuri eta Zelai Aristiren bategitea

Albistea



Gainzuri eta Zelai Aristiko arduradunak prentsaurrekoan

Batasunak indarra dakarrela dioen esaldiari jarraiki Zelai Aristi eta Gainzuri ikas-tetxeek bat egitea erabaki dute. Duela bi urte hasitako negoziaketek aurrera egin dute eta hurrengo ikasturtetik aurrera Zelai Aristiko ikasle irakasleek ikastetxe berrira ohitzen hasi beharko dute.

Dena den, aldaketa ez da kolpetik eman-go, 98-99 ikasturtea haur hezkuntzakoak elkartuko dira leku berean eta gainontze-koak urte bete beranduago.

Arrazoi desberdinek bultzatu dituzte eskola hauetako arduradunak erabaki hau hartzea. Gauza jakina da jaiotze kopuruak nabarmen egin duela behera eta honen ondorioz ez dago bi ikastetxeentzat haur nahikorik.

Bestetik azken urteetan Zumarragako haur asko Gainzuri aukeratu izanak ere zerikusi izan du.

Eta azkenik erabaki honek Eskola publi-koen egoera ona sendotuko omen du. Hau guztia gutxi balitz aldaketa honekin Zumarragako herriarentzat Zelai Aristi hutsik geratuko da.

Batze honek, azpiegitura aldatu beharra dakar. Datorren ikasturtean hiru gela eta erabilpen anitzeko areto berri bat eraikiko dira. 99-2000 ikasturtea berriz, Labeaga eskolako 6 gela egokituko dira.

Batasun honekin zerbitzu gehiago eman nahi dituzte debaldeko jantoki eta garraio-ak besteak beste.



Sarituak argazkian Onceko elastikoarekin.

Zorionak La Salleko ikasle hauei! Oncek antolatutako txapelketan horren ondo aritzeagatik. Izan ere, epaimahiak ikasle hauen proiektua aukeratu zuen, kamiseta batzuen disei-nua egiteko.

Bestalde ikastetxe bereko beste ikasle batzuek ere, izan dute saririk. Renfek antolaturiko marrazki lehiaketa batean lehenengo eta hirugarren sariak lortu baitzituzten Aritz Elejalde eta Sara Perezek. Abel Gajetek gainera geltokirik onenaren saria jaso zuen.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETUXU ☎ 72 25 13

OINETAKOAK

OSAGARRIAK



Doña Maximina

Labeaga, 2 URRETUXU ☎ 943 72 44 82



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6

☎ 72 52 22

ZUMARRAGA



GUREA


Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETUXU

Juan Luis Escudero ETBn zurekin udazkenean



Juan Luis Escudero antzerki tailerreko lagunekin

Juan Luis Escudero zumarragarrak, Donostiako La Sallen hasi zen antzerki munduan fraile baten eskutik. Ordutik hona antzeztea lanbide bihurtu du, eta ezin esan geldirik egon denik: Zumarragako Karmakros antzerki taldean aritua, Eusko Jaurlaritzaren antzerki eskolan (Antzerti) 4 urtez, Geroa antzerki taldean 10 urtez, La Blanca Paloma eta 27 ordu filmeetan parte hartu zuen, Amador laburmetraian, TVE eginiko La España Mágica telesaileko kapitulu batean, eta abarrean aritu da.

Zertan zabilta orain?

“El Cruce” talde madrildarrarekin lanean ari naiz. Summersekin batera TVE ko Mitomania saioa aurkezten zuen Susana Hernandezek jarri du produkzioarako dirua eta zuzendaria Ernesto Caballero da. Maria Sarmiento obra antzezten ari gara eta oso gustura nabil. Uztailaren 11-14 bitartean Donostian izango gara bertako antzerki ferian. Antzerki lan honetaz gain, ETB 2rako serie batean ere lanean ari naiz.” Entre dos fuegos” izena du eta bertan Patxi Bisquerten aginduetara dagoen gaizkile baten papera dut.

Serie honetan Mario Pardok eta Clara Badiolak ere parte hartzen dute. 22 kapitulu grabatu behar dira hasteko eta nik 5 edo 6 tan parte hartuko dut. Ideia gero kapitulu gehiago grabatzea da. Kulebroi baten antzekoa dela esan daiteke, Goenkaleren parekoa baina gazteleraz. Hori bai, “Entre dos fuegos” urbanoagoa da. Kaleko irudiak, adibidez, Bilbon grabatzen ari gara. Uste dut iraila aldera, udazkeneko programazioa hastearekin batera, telebistan ematen hasiko direla.

Zer moduzko erlazioa duzu telebistarekin?

Beno, aktoreok ahal bezala aurrera egin beharra dugu. Ni estatuko antzerki askotan lanean aritu naiz eta honek esperientzia ematen dizu. Telebista, berriz, askoz ere erosoagoa da: etxetik hurbil ari naiz lanean eta ondo kobratzen da. Aktorearena lanbide gogorra da eta telebistan lan egiteak egonkortasuna ematen dizu epe baterako. Banuen gogoia ETBn lan egiteko eta espero dut etorkizunean ere aukeratua izatea. Hala ere, esan beharra dago niri antzezle bezala antzerkiak askoz ere gehiago asetzen nauela.

Lehenengo familia Madrilen dut eta bigarre-na Urretxu Zumarragako antzerki tailerra da

Honetaz gain, bi herriotako antzerki tailerrean ere ari zara.

Bai, eta bertan osatu dugun lagun taldea eta giro ederra faltan somatzen ditut kanpoan egoten naizenean. Aurten lan gogorra egin dut sartu diren kide berriekin, beharrezkoa da urtero jende berria sartzea



taldean, haize freskoa sartzea. Beste espektakulu bat kaleratzeko asmoa dugu, baina honek lan handia suposatzen du. Orain Jose Luis Padron gidoi bat erdaraz idazten ari da, baina dena aurrera ateratzea oso gogorra da. Zelai Aristi teatroaren inaugurazioa oso data polita izango litzateke antzezlan berri hau aurkezteko.

Gertatzen dena zera da, oso zaila dela honelako talde bat erregulartasunez biltzea bakoitzak bere lana edo ikasketak baititu. Antzezlan bat ateratzeko, hilabete batean edo bitan laupabost orduz batera lan egin beharra dago ordea.

Nola ikusten duzu euskal antzerkiaren egoera?

Nire ustez berpizten ari da euskal antzerkia. Zenbait antzezlanek izugarritzko arrakasta lortu dute estatu mailan. Hor daude adibidez, Tanntaka antzerki taldeko kideak "El Floriko Pensil lanarekin". Hilabeteak daramatzate Madrilen antzeztan eta datorren urtera arte jarraitzea ziurtatua dute Jose Ramon Soroiz, Mikel Garmendia eta abarrek.

Txalo taldearen "Xagu tranpa" ere oso ondo dabil eta Urretxun ikusi ahal izan zenuten zein lan ona burutu duten. Markeliñe taldeak ere sari asko lortu ditu.

Albert Boadella zuzendari espiritual baten modukoa da niretzat

Lan guztiek ez dute arrakasta bera, baina berpizte oso garrantzitsua eman dela esango nuke.

Ez al duzu uste jende gazteak zailtasunak izan ditzakeela aurrera egiteko, aukerak betiko aktoreei ematen zaizkiela Euskal Herria mailan?

Telebista aukera handia izan da aktore talde batentzat euskeraz ondo lan egiten zutelako. Niri ere izugarri gustatuko litzaidake euskeraz lan egiteko dohaia izatea. Orain gazteleraz ere produzitzen hasi dira ETBn eta hau ni bezelakoentzat aukera ona izan daiteke. Euskera dominatzen ez dugunok ezagunak izaten hasiko gara.

Hau iraupen lasterketa bat da eta epe luzean lan egiten duenak eta talentua duenak bere aukera izango du.

Bukatzeke esaiguzu gustukoen dituzun antzezlan, aktore eta zuzendariak


"La taberna fantástica"n Rafael Alvarez "El Brujo"ren papera egitea izugarri gustatuko litzaidake. Bestalde, Shakespeareren edozein pertsonaia ere gustura hartuko nuke.

Aktoreei dagokionez, Francisco Rabal izugarri miresten dut. Euskadi mailan Jose Ramon Soroiz oso ona iruditzen zait. Hala ere, edonorekin lan egitea gustuko dut: Gutxien espero duzunarengandik zerbait ikasi dezakezu. Lanbide honetan esponja baten moduan aritu beharra dago.

Gustuko dudana zuzendaria Albert Boadella da, izugarria da. Zorte handia dudala esan beharra dut, bere kurtsilo batean parte hartzeko hautatu bainaute beste hamaika aktoreekin batera. Niretzat buruzagi espiritual baten modukoa da eta ahalik eta gehien ikasten saiatu behar dut. Bere lan batean parte hartzea izugarria litzateke.



Ikasturte amaiera ospatzearekin batera, Urretxu-Zumarragako ikastolak, omenaldi hunkigarria eskaini zien 25 urte irakasle lanean aritu diren lankideei. Maria Jesus Zaldua, Puri Urrate, Juani Zabaleta, Gaspar Insausti, Itziar Zaldua, Maribi Osinalde (argazkian), Josune Alberdi, Mertxe Zabalo eta Arantxa Aztiria izan ziren merezimendu osoz omenduak. Azken honek, Garaialde Lizeoan jaso zuen saria ikasleentzako txalo artean.




Industrialdearen 3. fasea martxan

Uztailaren 6an, Ekonomia eta Turismo saileko diputatua den Guillermo Etxenike eta Sprilurreko zuzendari orokorra, Jose Miguel Agirre izan ziren besteak beste Zumarragako Udalaren industrialdearen 3. fasearen eta Oiaungo poligonoa izango den berri jakiteko.

Industrialdearen 3. fasea, hurrengo urtea eta 2000. urte bitartean eraikiko da. Pisu bateko hiru pabilioi eta bi pisuko pabilioi bat egingo dira, guztira, ia 11 mila metro karratu eraikiz. Oiaungo poligonoak, berriz, denbora gehiago beharko du. Beasain-Durango errepidearekin batera, 2003. urtean egingo da eta eskualde mailako izaera izango du.

Zumarragako udalaren oharra

Hurrengo iralaren 1etik aurrera, Ondasun Higiezinaren Zerga eta Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga kanpainarekin bat eginez, ordainagiriaren kobrantza modalitatea aldatuko dute eta hauek, Banku, Entitate laguntzaileen bidez egingo dira. Horregatik, ordainketak, aipaturako Entitate laguntzaileetan egin beharko dira. Beraz, Entitateera bertaratu behar ez izateko, hau izan daiteke momentu egokia zure ordaingiriak domizializatzeko. Udaleko Zerga-bilketa bulegora bertaratuz edo Zerga-bilketako telefono honetara deituz (943 729157) egin dezakezu hau.




Argazkian dituzuen lau txirrindulari hauek, sekulako maila erakutsi zuten ekainaren 28an, Urretxuko udaletxe aurretik, Zumaiaiko sarreraraino, 55 minutu eta 50 segundutan iritsiz. Jesus Mari Alberdi, Pello Gonzalez, Tomas Lekuona eta

David Madinabeitiak honela, lagunarteko apostua irabazi zuten, ordubete baino lehenago iritsi baitziren Zumaiaira. Bazkaria jokuan bazuten ere, azkenean lagun onak direla erakutsiz, bakoitzak berea ordaindu zuen. Tranposo xamarrik izan ziren, gorritz zegoen semaforo batean, aurrera egin baitzuten. Hala ere, gure mirespena merezi dute. ZORIONAK!, Tourra zuen zain dago!

Udaleku irekiak zabaldu dira

6 eta 11 urte bitarteko 143 haur eta 14 begirale dabilta aurtengo udaleku irekietan. Euskara lantzea, opor garaian aisialdia modu egokian betetzea eta partaideen arteko harremana sendotzea dira udaleku honen helburuak. Uztailaren 6tik 24ra bitartean izango dira udaleku hauek. Garaialde Lizeoan biltzen dira eta bertan, hainbat ekintza burutzen dituzte. Beatriz Igoa koordinatzaileak esandakoaren arabera, herri kirolak, oka jokua eta antzerkia egiteaz gain, hainbat irteera egiteko asmoa ere badute: Mendira, igerilekuetara eta beharbada, Mirandaolara ere bai. Guk bisitatu genituen egunean, San Fermin izanik, zapi gorria lepoan zutela zebiltzan.



Murugarren zumarragarra

Athletic taldearekin fitxatu du

Azken denboraldi hau Urolako Kadeteen taldean egin du Iñaki Biain eta Rafa F.dez de Lezearen aginduetara. Urtebeteko kontratua sinatu du talde zurigorriarekin eta abuztuaren 17an hasiko da Lezaman entrenatzen Txingurri Valverderen aginduetara.

Izena: **Xabier Murugarren**
 Jaioterria: **Zumarraga**
 Gustuko taldea: **Osasuna**
 2. taldea: **Euskadiko talde guztiak**
 Postua: **Erdilaria**
 Jokalari bat: **Jan Urban**
 Entrenatzaile bat: **Johan Cruyff**
 Desio bat: **Bizitza ongi bizitzea, futbolari ona izatea eta bizitzan zortea izatea.**

Nola izan da fitxaketa aurretiko prozesua?

Entrenamendu baten ondoren, etxean lasai-lasai nengoela, Athleticen Jon Aiestaranek deitu zidan hurrengo denboraldiari begira fitxatu nahi nindutela esanez. Bi aldeak ados jarri ginen baina Urolari abisatu behar zioten eta Urolak Errealarekin hitzarmen bat sinatuta duenez, ez zuen begi onez ikusi akordio hau. Ondorioz, Athleticen niganako interesa erakutsi ondoren, Errealek deitu zidaten proba batzuk egitera joan nendin eta behin proba hauek egin ondoren ezer esan ez didatenez, Athleticen fitxatzea dela egokiena ikusi dugu.

Zure aukeraketak Gipuzkoan gaizki ulertuak sor ditzakeela uste al duzu?

Ez dut uste. Agian norbaiti ez zaio ongi irudituko, batik bat Erreala eta Athleticen artean dagoen lehia handiegia delako baina nire kasuan garbi jokatu dudala uste dut. Athleticen fitxatu aurretik Errealarekin proba batzuk egin ditut eta azkenean ez dute niganako interesik erakutsi.

Athleticek, ordea, bai beraz, normalena egin dut. Zerk bultzatu zaitu Athletic aukeratzera?

Athleticek gehiago zaintzen du kantera. Niri adibidez, erresidentzia ikasketak eta bidaiak ordaindu egingo dizkirate. Gainera, etorkizunari begira, ikasketak unibertsitario gehiago daude Bilbon eta bere inguruan.

Beraz, nahiz eta talde zurigorriarekin fitxatu, ikasketetan arduratsu jarraitzeko asmoa duzu.

Bai. Gure taldetik, agian, bi edo hiru jokalaririk bakarrik iritsiko baitira lehen taldera. Ikasketek garrantzia handia ematen diete Lezaman. Derioko erresidentzian egongo naiz urte osoan ESoko 4. maila ikasten eta ahal dudanean, astebukaeretan, etxera itzuliko naiz bisitan. Igandean jokatzen badugu, ostiralean etorri eta larunbatean itzuli beharra dut. Partidua larunbatean izaten bada, gauean etorri eta igandean itzuliko naiz. Parrandak amaitu dira niretzat.

Zure entrenatzailea izango denarekin, Txingurri Valverderekin hitz egiteko aukera izan duzu. Zer esan dizu?

Lezamako futbol zelai eta aldagelak ikusten izan ginen Amorrortu eta Valverderekin. Batik bat, lotsarik gabe eta dakidan bezala jokatzeke esan



Xabier Murugarren, hurrengo denboraldian antziko duen kamisetarekin.

zidan Valverdek, ongi pasatuko dugula.

Arrasateko bat, Tolosako beste bat eta ni izango gara datorren denboraldian jokalaririk berriak Athleticen kadeteen taldean. Ikusten duzun bezala ez naiz gipuzkoar bakarrik izango. Bestalde, nire kasa egin beharreko ariketa batzuk eman dizkirate eta futbol eta futbitoan ez jokatzeke agindua dut. Saskibaloia, igeriketa eta frontoiko kirolak egitea gomendatu didate.

Urolako kadeteek eginiko denboraldi bikainak ere izango zuten zerikusirik fitxaketa honetan.

Ez dakit. Nik ez nuen ezer espero. Bat-batean, ohean nengoela, telefonoak jo zuen ta nire aitak talde zurigorriak fitxatu nahi ninduela esan zidan. Egia da Urolan denboraldi ederra egin dugula. Bi entrenatzaile eta jokalaririk guztiek lagun talde sendoa osatu dugu eta futboleko jokatzen gozatu egin dugu. Hori garrantzitsua da.

Gipuzkoan bizi, Athleticengatik fitxatu eta gustuko taldea Osasuna. Nola ulertzen da hau?

Ja,Ja! Ez dakit. Aita nafarra da eta ama, berriz, arabarra. Aurten, Osasuna eta Alavesen arteko derbietan iskanbila ederra izan da etxean. Nik aitaren aldera egin dut. Betidanik gustatu izan zait Osasuna. Oraindik gogoan dut Real Madridi sartu zion 0 eta 4ko hura. Urbanek sekulako partidua egin zuen eta goletzaila nagusia bera izan zen. Hasi al zaizu jendea sinadura eske?

Ez, ez. Lagunek zoriondu egin naute eta batzuek, adarra jotzen didate "bilbaino" esanez. Baina beti ere txantxetan.

CHIARA

Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
 20700 URRETU

TABERNA

Churrueta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
 Enpresa mantenua
 Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 09 50
 Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
 ☎ Mugikorra: 919 442 617
 20700 URRETU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
 ☎ 72 11 55
 Zumarraga

Labeaga, 43
 ☎ 72 16 81
 Urretu

Kale nagusia, 5
 ☎ 73 04 19
 Legazpi

*** ZURE ESTUDIOA ***

URKi

JOSTAILU
AUKERA
HANDIA

S. Esnaola, 3
 ☎ 72 42 98
 ZUMARRAGA



Nekane Fdez de Aranguiz Lurran 25 urte egin dituen dantzaria

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Ileapaintzailea.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Epela.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Eguzkia hartzea.

✓Kolare bat?

Beltza

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Mexikora bidaia

✓Nor gustatuko litzazuke ezagutzea?

Benetako sorgin bat

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Nekatzeko

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?
Altuera.

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?
Begietara.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?
Elkarteentzako egoitza gehiago.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?
Urretxu oso-osorik.

✓Urretxun ezik non biziko zinateke gustura?
Donostian.

✓Zein da duzun ohiturarik okerrrena?
Jenio bizia dut baina berehala pasatzen zait.

✓Bete gabeko amets bat?

Loteria tokatzea.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Dantzatzeko.

✓Kantu bat.

Lurra dantza taldeak egokitutako meritua.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Normalean besteak nire zain.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?
Urretxuar nortasuna.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-
ra?

Nigatik.

✓Gaua ala eguna?

Gaua.

✓Lo egiteko zer?

Pijama motza.

✓Gustuko janari bat?

Paella.

✓Ura, ala...

Kafea.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez
duzun hori?

Ezer ez. Zorionsua naiz.

URRETXU
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa - Audiometriak - Audifonoen moldaketa - Begiko tentsioaren hartzea


Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 720907

Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 725968

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75

PAGOETA HAURTZAINDEGIA



**Adina
0-3 urte**

**Matrikula
epea
zabalik
uztailaren
20ra arte.**



**URRETXU
ZUMARRAGA**



IKASTOLA

☎ 943 72 00 26

ASTRA BERRIA



OPEL 

ALTAMIRA TAILERRAK

GOIERRIKO ZERBITZU OFIZIALA

Matxinporta kalea, 4
☎ 943 72 33 71

URRETXU